



# PRIMARIOEN ARAUDIA

2019/06/13

## **1. ZIOEN AZALPENA**

Eusko Alkartasunaren (aurrerantzean, EA) estatutuen 35. artikulua, azken paragrafoan, hauxe dio: Idazkari Nagusiaren hautaketa alderdikide guztiei irekitako barne-primarioen bidez egingo da, arautegiaren arabera ezarriko den sisteman oinarriturik.

EAREN estatutuen 53. artikulua hauxe dio: Idazkaritza Nagusia betetzen duen pertsonaren dimisio-, ezgaitasun- edo heriotza-kasuan, Nazio Batzarrak hautatuko du jarduneko Idazkari Nagusia. Bi hilabeteko epean, gehienez, primarioen prozesua abiatuko da Idazkaritza Nagusia beteko duen pertsona hautatzeko.

Aipatu estatutuen Azken Xedapenetatik Lehenak zera dio: Estatutu hauek indarrean sartuko dira Nazio Biltzarraren Osoko Bilkurak onartzen dituen unean, 35. artikuluan ezarritakoa salbu, Idazkari Nagusia hautatzeko primarioen prozedurari buruzkoa, zeina indarrean sartuko den aipatu biltzarrean hautaturiko Idazkari Nagusiaren ondorengoa aukeratzeko.

Azken Xedapenetatik Bigarrenak dio gutxienez honako arau, plan edo araudiek garatuko dituztela EAREN Estatutuak: Primarioen araudia.

Primarioen araudi honek aipatu hauteskundeak egiteko arautegiaren araberako prozedura orokorra ezartzea du helburu, bai eta bertara aurkezteko betekizunak eta lotura duten beste hainbat kontu zehaztea ere.

Araudi hau onartuta, Nazio Batzarraren nahia da prozedura parte-hartzailea izatea. Hautagaitza guztiek trataera inpartziala eta berdina —denborari eta baldintzei dagokienez— izango dute bertan.

### **1. ARTIKULUA.- XEDEA**

Araudi honen xedea da Idazkaritza Nagusia hautatzeko Primarioen prozedura arautzea.

## **2. ARTIKULUA.- SUFRAGIO PASIBOA ETA HAUTAKETA-SISTEMA**

### **2.1- SUFRAGIO PASIBOA:**

Hautagarria izan ahalko da, hautesle izateko baldintza beteta (eskubide guztiak dituen alderdikidea izatea), araudi honen 7. artikuluan ezartzen diren hautagai izateko betekizunak betetzen dituen pertsona oro.

### **2.2- SUFRAGIO AKTIBOA:**

EAREN primarioen prozesuan, botoa emateko eskubidea izango du baldintza hauek betetzen dituen pertsona orok: EAKO alderdikidea izatea, alderdikide izateko kuotaren ordainketa egunean edukitzea —edo kuota hori ordaintzeaz salbuetsita egotea— eta arautegiaren arabera ezarritako betekizunak betetzea.

Halaber, alderdiari edo hura kide duten konfederazio politikoei betebeharrak ekonomikoak dakartzkien kargu publikoren bat izan dutenek egunean izango dituzte betebeharrak.

### **2.3- HAUTAKETA-SISTEMA:**

Idazkari Nagusiaren hautaketa buelta bakarrean egingo da.

### **3. ARTIKULUA.- HAUTESLE-ERROLDA**

- I- Hautesle-errola ixteko egunean EAREN Datu Basean dauden EAKO alderdikideek osatuko dute hautesle-errola.
- II- Primarioetan parte hartzeko eskubidedun alderdikideen errola itxiko da primarioen prozesuari hasiera emango dion EAREN Nazio Batzarra hasteaz batera.
- III- EAREN hautesle-errolan, alderdikide bakoitzaren datu hauek agertuko dira:
  - I. Izena eta bi abizenak
  - II. Zein tokiko erakundetako kide den
- IV- Errola itxitakoan, Hauteskunde Antolaketa Batzordeak zainduko du hura.
- V- Hauteskunde Antolaketa Batzordeak izango du hautesle-errola egin, argitaratu, zaindu eta ixteko ardura. Era berean, haren erabilera arduratsua eta datuak babesteko legeria zainduko ditu.
- VI- Hautesle-errola osatzen duten pertsonen boto-eskubidea dutela jakinaraziko zaie.
- VII- Hauteskunde Antolaketa Batzordearen ardura izango da Hautesle Erroldari jar lekizkiokeen erreklamazioak ebaztea, dagokion epean eta moduan. Izena emandako pertsonaren batek zalantzarik balu, kanpoko kontu-ikuskapena egin dadin eskatu ahalko du, horren kostu zenbatetsiaren adinako fidantza aurretik ordainduta.
- VIII- Lurralde bakoitzeko Hautesle Erroldaren kopia inprimatua utziko da EAREN lurralde-egoitzetan, eta ezin izango da fotokopiatu, ezin izango zaio argazkirik atera, ezta bestela erreproduzitu ere. Interesa duten pertsonak bakarrik kontsultatu ahal izango dute beren egoera, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorren arabera jarritako neurriei jarraiki.
- IX- Abalak jasotzeko eginkizuna bermatzearen, EAREN Idazkaritza Nagusirako beren burua aurkezten duten pertsonen Hautesle Errola kontsultatu ahal izango dute, 7F artikuluan eskaturiko abalak lortzeko, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorren gaineko legegintza-garapenarekin bat eginda jarritako neurriei jarraiki.

### **4. ARTIKULUA.- AFILIATUEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

- I- Estatutuen 14. eta 15. artikuluei jarraiki, alderdikideek eskubidea dute hautaketa-prozesuari buruzko egiazko informazioa, zehatza eta osoa jasotzeko. Orobat, prozesuan parte hartzeko eta hautatzeko nahiz hautatuak izateko eskubidea dute, bai eta beren datuen konfidentzialtasuna errespetatua izateko eta alderdiaren araudia betetzeko eskatzekoa ere.
- II- Era berean, alderdikideek betebeharrak hauek dituzte: alderdiari ekonomikoki lagundu eta beren salbuespena egiaztatu, hauteskunde-prozesuetan artekari edo ahaldun izan, organo eskumendunen ebazpenak bete eta eskura izan dezaketen informazioaren erabilera okerrik egin ez.

## **5. ARTIKULUA.- PRIMARIOEN PROZESUKO HAUTESKUNDE ANTOLAKETA** **BATZORDEA.-**

- I. Nazio Batzarrak jarduneko Idazkari Nagusia izendatu eta gehienez astebetera, primarioen prozesuko Hauteskunde Antolaketa Batzordea (aurrerantzean, HAB) eratu eta bilduko da.
- II. Hauek osatuko dute HAB:
  - a) EAREN jarduneko Idazkari Nagusia. Hitzez eta botoz.
  - b) EAREN Antolakuntza, Finantza eta Hauteskunde Mekanikako Idazkaria. Nazio Kontseiluaren ordezkari. Hitzez eta botoz.
  - c) Nazio Batzarreko mahaiaren aukeraturiko Nazio Batzarreko mahaiaren ordezkaria. Hitzez eta botoz.
  - d) Aurreko hirurek aukeraturiko idazkari tekniko bat, hitzez, baina botorik gabe.
  - e) Kide bakoitzaren ordezkapena ordezkatzeko duen organoan bertan egingo da.
  - f) Ordezkapen hori ahalik eta orekatuena izateko ahalegina egingo da, generoari, adinari eta lurraldeari dagokienez.
  - g) Hautagaitza bakoitzak HABerako kide bat izendatu ahaliko du. Hitzaz eta botoz izango ditu, eta HABekoa izango da ordezkatzeko duen hautagaitza formalizatzen denean.
- III. BATERAEZINTASUNAK:
  - a) HABeko kide izatea ez da bateragarria aurrehautagai izatearekin, edozein hautagaitzaren aldeko plataformako kide izatearekin edo horien ordezkari zein ahalduz izatearekin. Era berean, HABeko kide izatea ez da bateragarria izango Berme Batzorde Nazionaleko kide izatearekin eta EAREN Zuzendaritza Batzorde edo Kontseilu Nazionaleko kide izatearekin (5, II b. artikuluan ezarritakoan salbu).
  - b) HABeko kideek ezin izango dute hautagaitzen aldeko abalik eman, ez eta edozein hautagaitzari babesa publikoki adierazi ere.
- IV. HABeko bilera guztietan akta jasoko da, eginiko akordioak, emandako botoen emaitza eta bileraren gai-zerrenda adierazita.
- V. Bileretako akta guztiak bertaratuek sinatuta egon beharko dira.
- VI. Akordioak aho batez lortzeko saiakera egingo da. Ezin bada, gehiengo soilak erabakiko du.
- VII. HABek araudi hau bete eta betearaziko du.
- VIII. HABek primarioen hauteskunde-prozesua antolatu eta gidatuko du.
- IX. HABek Hautesle Errolda egin, kudeatu eta zainduko du.

- X. HABek prozesu parte-hartzailearen garapen egokia zainduko du. Ezarritako epe eta moduan aurkezten diren zalantzak eta erreklamazioak ebatziko ditu.
- XI. HAB izango da komunikazio-sailarekiko solaskide bakarra primarioen prozesuari dagokion guztian.
- XII. HAB eratzeko bilera primarioen prozesuaren hasieratzat joko da.

- XIII. Eratzeko bileran
- a) Erreklamazio-orriaren, kontsulten eta bestelako beharrezko txantiloak egingo dira.
  - b) Primarioen prozesuaren egutegi osoa ezarriko da, araudi honetan garatzen diren etapa guztiak egiteko datak, erreklamazioak aurkezteko epeak eta sor litezkeen zalantzak zehazturik.
  - c) Hauteskunde-kanpainak nolakoa izan beharko duen zehaztuko da.
  - d) Posta bidezko botoa bermatzeko sistema eratuko da.
  - e) Hautesle-errola zehaztu eta aditzera emango da.
- XIV. HABek aurrehautagaitzek aurkeztutako abalak jaso eta egiaztatuko ditu.
- XV. HABek hautagaitza ofizialak izendatuko ditu.
- XVI. HABek hauteslekuen kokapena zehaztuko du.
- XVII. HABek hauteslekuak zehazten direla bermatzeko ardura izango du, bai eta isilpeko botoa beti bermatuko duten boto-paperak egin eta hauteslekuetara bidaltzekoa ere.
- XVIII. HABek hautesleku bakoitzari dagokion Hautesle Errola esleituko dio.
- XIX. HABek bozkatzeko ordutegia ezarriko du, Hautesle Erroldan dauden pertsona guztien parte-hartzea bermaturik.
- XX. HABek bozketa eta zenbaketa ikuskatuko ditu, egoki deritzon moduan, eta hautesleku guztietako zenbaketa-aktak zainduko ditu.
- XXI. HABek azken emaitzak ezagutaraziko ditu.
- XXII. Primarioen prozesua amaitutakoan, txosten bat aurkeztuko dio EAREN Nazio Batzarrari, prozesuaren garapena laburtzeko. Txostenaz batera, bere bileretako akten kopia bana aurkeztuko du.

## **6. ARTIKULUA.- AURREHAUTAGAITZAK**

- I. Primarioen prozesua hasita, Hautesle Erroldan dagoen edonork aurkeztu ahalko du bere burua hautagai izateko, eta AURREHAUTAGAITZAT joko da.
- II. HABen aurkeztuko dute haien hautagaitza, horretarako prestatutako inprimakiaren bidez.
- III. Espresuki onartu beharko dituzte primarioen prozesua arautzen duten arauak.

## **7. ARTIKULUA.- HAUTAGAITZA OFIZIALAK**

- I. Hauteskunde primarioetako hautagai OFIZIALA izateko, aurkezturiko pertsonak betekizun hauek bete beharko dituzte:
- a) Eako alderdikide izan hautesle-errola itxiko den eguna baino 12 hilabete lehenagotik, gutxienez.
  - b) Aurretiaz EAREN kode etikoa eta finantza-gutuna sinatua izan, bai eta hautagaitzaren onespren formala ere.
  - c) Alderdiari edo hura kide duten konfederazio politikoei betebeharrak ekonomikoak dakartzkien kargu publikoren bat izan dutenek betebeharrak egunean izan.
  - d) Euskaraz idatziz eta ahoz behar bezala egiten duela frogatu beharko dio HABI.
  - e) Biografia pertsonal, profesional eta politiko laburra aurkeztu. Halaber, Idazkaritza Nagusira aurkezteko arrazoien berri emateko testua idatzi (gehienez, 3.000 karaktere), euskaraz, behintzat; horrekin batera, bere argazkia aurkeztu.
  - f) Abalak aurkeztu. Horretarako, premisa hauek bete beharko dira:
    - 1. Abalak HABen aurkeztu beharko dira.
    - 2. Abalak HABek ezarritako epearen barruan aurkeztuko dira.
    - 3. Abalak HABek emango duen abal-ereduari jarraiki aurkeztuko dira (hautagaitzari abala eman dionaren sinadura originalaz eta NAREN edo pasaportearen fotokopiaz batera).
    - 4. Alderdikide batek ezin izango dio abalik eman hautagaitza bati baino gehiagori, inola ere.
    - 5. HAB arduratuko da aurkezturiko abalen baliozkotasuna egiaztatzeaz, bai eta haiek zaintzeaz eta haien konfidentzialtasunari eusteaz ere.
    - 6. Hautesle Erroldako pertsonen 50 abal aurkeztu beharko dira, gutxienez 5 abal lurraldeko.
  - g) Abalak egiaztatuta eta zenbatuta, HABek artikulua honetako betekizunak bete dituzten hautagaitzak izendatuko ditu.

## **8. ARTIKULUA.- INFORMAZIOA EMATEKO HAUTESKUNDE-KANPAINA**

- I. HABek ezarriko du hautagaitzak aurkezteko prozesuaren iraupena, eta, epe horretan, hautagaiak beren hautagaitzaren kanpaina egin ahalgo dute.
- II. Inor ez badago prest bere burua Idazkari Nagusi izateko aurkezteko, epea HABek zehaztutakoaren arabera luzatu ahalgo da, salbuespenez, harik eta pertsona bat, gutxienez, prest agertu arte.
- III. Eztabaida- eta bozketa-prozesurako epeak errespetatuta, pertsona bakar batek hautagai izatea onartzen badu, EAREN Idazkari Nagusi izendatuko da, zuzenean.

- IV. Informazio-kanpainan, hautagaiek jokabide egokia izan beharko dute, gure erakundeak oinarri dituen printzipioen arabera.
- V. Hautagaitzek alderdiaren barne-araudia errespetatu beharko dute, bereziki estatutuak eta primarioen prozesuaren gaineko araudia. HABek hautagaitzek arautegia betetzen dutela zainduko du, eta, urratuko balitz, zehapenak ezarri ahalko ditu, tartean hautagaitza bera gaitasungabetu.
- VI. HABen bidez, hautagaitza ofizialei alderdiak haien esku utziko dituen baliabideak eskainiko zaizkie, baldintza beretan.
- VII. Berdintasun- eta erantzukizun-irizpideak aintzat hartuta, HABek informazio-kanpainak iraun bitartean hautagaitzen esku utziko diren bitartekoak ezarriko ditu. Nolanahi ere, hauek bermatuko dira:
  - a) Erroldan dauden pertsona guztiei hautagai bakoitzari buruzko informazioa bidaliko zaie. Horretarako, hautagaitza formalizatzean emandako informazioa erabiliko da (ikus 7E artikulua).
  - b) HABek eztabaida-saio bat antolatuko du ados dauden hautagai guztiekin.
  - c) Hautagai orok egoki deritzen topaketak antolatu ahalko ditu hautesleekin, EAREN egoitzetan edota Alkartetxeetan. Hautagaiek horien berri eman beharko diote HABi, eta batzordeak, berriz, ikuskatu egingo ditu.
- VIII. Komunikazioa:
  - a) Komunikazio-kanpaina ofizial bakarra egongo da.
  - b) Kanpainaren gaineko informazioa dela eta, tratu berdina bermatuko da EAREN komunikazio-tresnen bitartez —komunikazioa, webgunea, sare sozialak—.
  - c) HABek EAREN webgunean abiatuko den atala kudeatuko du. Bertan, hautagaiekin eta informazio-kanpainarekin lotutako informazioa zabalduko da.
  - d) Hautagai bakoitzari buruzko bideo bat grabatuko da. Bideoak EAREN webgunean ikusi ahalko dira, primarioen atalean.
- IX. Finantzaketa:
  - a) Kanpainarako baliabide ekonomikoei dagokienez, HABek tratu-berdintasuna bermatu eta beteko du.
  - b) Hautagaitzek egiazkotasun-, herstura-, erantzukizun- eta gardentasun-printzipioei jarraiki egingo dituzte informazio-kanpainak, zeinak HABen zaintzapean egongo diren une oro.
  - c) EAK ezin izango du ordaindutako edo edozein kontraprestazioren mendeko irudi- edo publizitate-kanpainarik egin, ez eta edozein norbanakok ere.

## **9. ARTIKULUA.- BOZKETA**



- I. Aurrez aurreko bozketa egun bakar batean egingo da. 5 XIV. artikuluari jarraiki, HABek bozketa-epealdi bat (ordutegia) finkatu du, Hautesleen Errolda osatzen duten pertsona guztiei parte hartzeko aukera bermatzearen.
- II. Boto-paperak eta gutun-azalak osatuko dute botoa. HABek prestatu eta emango ditu boto-paperen formatua.
- III. Hautetsontzi batean bozkatzeko da. Botoa pertsonala, isilpekoa eta aurrez aurrekoa —hauteslekuetan— edo posta bidezkoa izango da.
- IV. Hautagaitzak lehen abizenaren arabera ordena alfabetikoan antolatuta egongo dira boto-paperean. Aukeratu nahi den pertsona bere izen eta abizenari erantsitako laukian X idatziz adieraziko da.
- V. Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Legeak ezarritako irizpideen arabera interpretatuko da boto-paperak baliozkoak diren.
- VI. Ez da egongo parte-hartzearekin lotutako gutxieneko ehunekorik.
- VII. Botoa ezin izango da eskuordetu.
- VIII. Posta bidezko botoa: hala bozkatu ahal izango dute bozketa-egunean beren botoa emateko eskubidea egikaritu ezin izango dutela aurreikusten duten hautesleek. Aukera hori antolatze aldera, HABek bere aurreneko bileran arautuko du posta bidezko bozketa egiteko modua. Hala, araudi bat prestatuko du bozketa-bide horren funtzionamendu egokia bermatzeko eta ziurtatzeko.
- IX. Bozketa-egunean, HABek arduradun bat, gutxienez, izendatuko du hautesleku bakoitzerako. Pertsona horrek hauteskunde-eguna egokiro garatzen dela zainduko du. Halaber, mahaiburu izan ahalko da.
- X. Pertsona hauek osatuko dute hauteskunde-mahaia: mahaiburu titularrak, idazkari titularrak, ordezeko mahaiburuak eta ordezeko idazkariak. Denak izango dira hautesleku horrekin lotutako Herri Batzarbaterako kide. Boluntariorik ez badago hautesleku baterako, beste OL batetik aukeratu ahalko dira, HABen irizpideen arabera.
- XI. HABek hauteskunde-mahaiko kide izateko boluntarioak eskatuko ditu EAKo alderdikideen artean. Postu bakoitzerako pertsona batek baino gehiagok aurkezten badute beren burua, HABek bozketa bidez hautatuko ditu kargu bakoitzaz arduratuko diren pertsonak.
- XII. Bozkatzeko eguna baino lehen, HABek jarraibideak emango dizkie hauteskunde-mahaiko kideei.
- XIII. HABek ebatziko du boto-paperen gaineko zalantza oro, baldin eta hauteskunde-mahaia bere burua ezgaitzat jotzen badu.
- XIV. Hauteskunde-mahaietarako proposatutako pertsonak agertzen ez badira, HABek, presazko neurri gisa, ordezekoak izendatuko ditu errolda osatzen dutenen artean.
- XV. Mahaiak eratutakoan, funtzio hauek bete beharko dituzte hauteskunde-egunean:
  - a) Boto-eskubidea askatasunez egikaritzen dela zaindu.
  - b) Hautagaitzetako ordezkariak egokiro jarduten dutela egiaztatu.
  - c) Boto-emaileak identifikatu (hori egiteko eskumena duen organo bakarra da).

- d) Bozketa-baldintzek ezarritako eskakizunak betetzen dituztela ziurtatu.
- XVI. Hautesleku bakoitzean, hautesleku horrekin lotutako hauteskunde-errola ofizialean dauden pertsonak bakarrik emango dute botoa. HABek hautesleku bakoitzari helaraziko dio errola hori.
- XVII. Boto-eskubidea egikaritzeko, nahitaezkoa izango da EAKo agiria aurkeztea, edo, bestela, ENA, NA, CNI, gidabaimena edo pasaportea. Era berean, ezinbestekoa izango da hauteslekuko hauteskunde-errola ofizialean agertzea —datu pertsonalen pribatutasuna bermatu egingo da—.
- XVIII. Hautagaitzek artekariak eta ahaldunak izendatu ahalko dituzte:
- a) Pertsona horien datuak jakinarazi beharko dizkiote HABi, bozkatzeko eguna baino bi egun lehenago.
  - b) Artekariak erroldan esleituta dituzten hauteslekuetan bakarrik egikaritu ahalko dituzte beren eginkizunak.
  - c) Bereizgarri bat eraman beharko dute, oso ikusgai, beren zeregina eta zein hautagaitzaren ordezkari diren agertzeko. Horretarako, HABek eranskailu batzuk emango dizkie.
  - d) Artekariak hauteskunde-mahaiari lagunduko diote, hauteskunde-eguna egokiro gara dadin. Orobat, hurrengo funtzioak bete ahalko dituzte: mahaiaren erabakietan parte hartu, hitzez, baina botorik gabe; zalantza egonez gero, hautesleen nortasuna egiaztatu; mahaiaren hauteskunde-errola kontsultatu; eta egoki deritzoten nahi beste idazki eta aurkaratze aurkeztu ordezkatzaren duten hautagaitzaren izenean.
- XIX. HABek haien eskubideen eta betebeharren berri emango die nola artekariak hala hauteskunde-mahaietako kideei, aldi berean.
- XX. Bateriaezina da mahaikide eta artekari izatea.
- XXI. Hauteskunde-mahai bakoitzak bozketa-egunaren gaineko akta egingo du, HABek horretarako emango dion ereduari jarraiki. Aktak informazio hau jaso beharko du: mahaiaren eraketa, erantzukizunak eta horiek beren gain hartzen dituzten pertsonak, hautagaitzen ordezkariak (artekariak), irekiera- eta itxiera-ordua, eta boto-kontaktaren emaitza eta izandako gorabeherak.
- XXII. Hauteslekuak Alkartetxeetan egongo dira, HABek, 5 XVII. artikulua oinarri, ezarri bezala.
- XXIII. Debekatuta egongo da hautagaitzetako kideak hauteslekuetako kanpoaldean boto-paperak ematen edo bozketari buruzko edozein ohar egiten aritzea.
- XXIV. HABi dagokio OLei bozketa-lekua esleitzea, 5XVII. artikulua arabera.

## **10. ARTIKULUA.- ZENBAKETA**

- I- Hauteskunde-eguna bukatutakoan, botoak zenbatuko dira. Mahaikideez gain, HABen ordezkariak, artekariak eta ahaldunak ere egon ahalko dira zenbaketan.
- II- Mahaiaren presidentetzak eta idazkaritzak zainduko dute botoen zenbaketa eta zenbaketa-akta behar bezala egiten direla.
- III- Zenbaketa amaitu eta akta izenpetu ondoren, HABi helaraziko zaio informazioa, mahaikideei emandako argibideetan ezarritakoari jarraiki.
- IV- Aktaz batera, mahaian erabilitako erroldaren kopiak igorriko dira, bai eta baliogabetzat jotako edo eztabaidaren bat eragindako boto-paperak eta gutun-azalak ere. Gainerako botoak eta gutun-azalak suntsitu egingo dira.
- V- Erreklamazio oro HABen aurrean egingo da, horretarako prestatutako txantiloia baliatuta —dokumentu honetan erantsita dago—.
- VI- Hautagaitza batek erreklamazioren bat aurkeztuz gero, HABek behin betiko izendapena baino lehen ebatziko du.

## **11. ARTIKULUA.- EMAITZEN JAKINARAZPENA**

- I- Boto gehien jaso dituen hautagaitzako burua izendatuko da Idazkari Nagusi.
- II- Plantea litezkeen kontu guztiak ebatzitakoan, eta jatorrizko aktak bere eskuetan dituenean, HABek behin betiko boto-zenbaketa egingo du, Idazkari Nagusiaren behin betiko izendapena egin ahal izateko.
- III- Idazkari Nagusiaren izendapenak jarduneko Idazkari Nagusiaren kargua iraungitzea eragingo du.

## **12. ARTIKULUA.- PROZESUAREN AMAIERA**

- I- Hauteskunde Antolaketa Batzordeak prozesuaren garapena eta emaitza azaltzeko txosten xehea egingo du. Txostena izenpetuta eta zigilatuta egongo da, eta egindako bilera guztietako aktak edukiko ditu, zeinetan ondokoak jasoko diren: adostutako akordioak eta hartutako erabakiak, mahaietako aktak, aurkaratzeak, erreklamazioak, idazkiak eta egindako ebazpenak. Txostenak, era berean, informazio-kanpainaren laburpen bat izango du, alderdiaren webgunean jasotakoa barne. Txostena EAREN egoitza nazionalean egongo da, eta edozein militantek edo afiliatuk kontsultatu ahal izango du.
- II- Txostena sinatutakoan, HAB iraungitzat joko da.

## **I. XEDAPEN GEHIGARRIA**

Jarduneko Idazkari Nagusia hautatzeko Ezohiko Nazio Batzarrerako deialdiarekin batera, kargu horri begirako hautagaitzak aurkezteko prozedura zehaztuko da. Hautagaitzak Ezohiko Nazio Batzarra hasi baino 24 ordu lehenagora arte aurkeztu ahalko dira.

Jarduneko Idazkaritza Nagusia bozkatzeko puntu bat egongo da Ezohiko Nazio Batzarreko gai-zerrendan.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Lehena: Araudi hau EAren Nazio Batzarrak onartu beharko du, eta egun horretan bertan sartuko da indarrean.

Bigarrena: Primarioen prozesuan Araudiaren gaineko interpretazio-zalantzaren bat egonez gero, Hauteskunde Antolaketa Batzordeak eta ez bestek izango du ebazteko eskumena.

Hirugarrena: Araudi honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Legeak xedatutakoari jarraituko zaio, modu subsidiarioan.

## **ERANSKINAK: TXANTILOIAK: (EGITEKE)**

- 1- HABen aktak
  - a. Eraketa eta Osaera
  - b. Ohiko edo ezohiko bilerak
  - c. Iraungitzea
- 2- Hautagaitzen aurkezpena
- 3- Abal-emaileak
- 4- Boto-papera
- 5- Gutun-azala
- 6- Posta bidezko bozketarako identifikaziorako gutun-azala
- 7- Erreklamazioak
- 1- Hauteskunde-mahaiaren osaketa-akta
- 2- Hauteskunde-mahaiaren boto-zenbaketako akta
- 3- Ahaldunen txartelak
- 4- Artekarien txartelak

